



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko azaroaren 17a

127. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sintoma edo zantzu arinak dituzten pertsonen jarraipenerako eta tratamendurako jarduketako protokolo adostuak taxutu eta ezar ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretinoblastomari buruzko sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainak egin ditzan Nafarroan. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, babes ofizialeko etxebizitza berrien eta prezio tasatuko etxebizitza berrien prezioei buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (4. or.).
- Galdera, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-eredu berriei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (4. or.).
- Galdera, lehendik dauden eraikinetan energia-birgaitzearen arloko jarduketak egiteko dirulaguntzen deialdiari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (5. or.).
- Galdera, foruzainen lanpostuen deialdiak zabaltzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Gazolazko egoitza-harrera espezializatuko zentroa ixteari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (6. or.).
- Galdera, abeltzaintza estentsiboaren arazoei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan ezarritako medikuntzako graduari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, LKN hiri-artistaren kartela kentzeari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, taberna eta jatetxeetarako, ostatuetarako, bidaia-agentzia eta turismo-jardueretarako eta gaueko aisiadirako laguntzei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (8. or.).

- Galdera, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legearen aldaketari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Europako Batzordeak Nafarroa gizarte ekonomiaren erreferentzia gisa izendatzeari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, 2021erako proposatutako aurrekontuek Nafarroarentzat izanzen dituzten eraginei buruzkoa. Ramón Alzoriz Goñi jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Gabonei begira aurreikusten diren mugikortasunari eta familia-bilerei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eta errenta bermatua gainezartzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).
- Galdera, desinformazioaren aurka jarduteko prozedurari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Ten Brinke multinazionalak Superser-en antzinako lurzatiaren esleipen-baldintzak betetzeko bermei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, ZIU oheak direla-eta benetan dagoen ahalmenari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Celaá Legearen onespeneren ondorioei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, hezeguneeen babesa zabaltzeari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoa idazteko kontratuaren lizitazioari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (14. or.).
- Galdera, udal enplegu publikoaren deialdiei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (15. or.).
- Galdera, EH Bildurekiko itunaren justifikazioari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, maskara gardenei buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Estatuarekiko negoziazioei buruzkoa, eskualdatu gabeko transferentziak izapidetze aldera. Uxue Barcos Berruezo andreak egin du (18. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sintoma edo zantzu arinak dituzten pertsonen jarraipenerako eta tratamendurako jarduketa-protokolo adostuak taxutu eta ezar ditzan.**

**OSASUN BATZORDEAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2020ko azaroaren 10ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sintoma edo zantzu arinak dituzten pertsonen jarraipenerako eta tratamendurako jarduketa-protokolo adostuak taxutu eta ezar ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sintoma edo zantzu ari-

nak dituzten pertsonen jarraipenerako eta tratamendurako jarduketa-protokolo adostuak taxutu eta ezar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazio- eta komunikazio-sistemak osa ditzan, ahalbidetze aldera informazioa partekatzea eta farmazia-bulegoen eta osasun sistema publikoaren arteko kolaboraziozko arreta hobetzea”.

Iruñean, 2020ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretinoblastomari buruzko sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainak egin ditzan Nafarroan.**

**OSASUN BATZORDEAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2020ko azaroaren 10ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretinoblastomari buruzko sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainak egin ditzan Nafarroan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sentsibilizazio- nahiz prestakuntza-kanpainak egin ditzan osasun arloko

profesionalen artean, minbizi-mota hau garaiz detektatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontzientziazio-kanpainak susta ditzan herritarren artean, Haur Minbiziaren Egunaren kariatara, otsailaren 15ean.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du pediatriako gaixoen joan-etorrien eta mantentzearen partidak handitu ditzan”.

Iruñean, 2020ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, babes ofizialeko etxebizitza berrien eta prezio tasatuko etxebizitza berrien prezioei buruzkoa.**

*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, babes ofizialeko etxebizitza berrien eta prezio tasatuko etxebizitza berrien prezioei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2021ean etxebizitza berriaren prezioak mantenduko dira metro koadro erabilgarriko 1.645,88 eurotan, babes ofizialeko etxebizitzetarako, eta 1.899,09 eurotan prezio tasatuko etxebizitzetako.

Zein da hartutako neurriaren helburua eta nola integratzen da Nafarroako Gobernuak garatzen duen etxebizitza-politikan?

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui,

## **Galdera, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-eredu berriei buruzkoa.**

*NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-eredu berriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-eredu berriak bultzatzeko?

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

---

**Galdera, lehendik dauden eraikinetan energia-birgaitzearen arloko jarduketak egiteko dirulaguntzen deialdiari buruzkoa.**

*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, lehendik dauden eraikinetan energia-birgaitzearen arloko jarduketak egiteko dirulaguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Otsailaren 4ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen Etxebizitzako zuzendari nagusiaren ebazpen bat, lehendik dauden eraikinetan energia-birgaitzearen arloko jarduketak egiteko dirulaguntzen deialdia onesten duena.

Zertan da aipatu deialdia eta nola integratzen da energia-birgaitzearen arlorako Nafarroan dauden gainerako laguntzetan?

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

## **Galdera, foruzainen lanpostuen deialdiak zabaltzeari buruzkoa.**

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, foruzainen lanpostuen deialdiak zabaltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehen lehendakariorde eta Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio

Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírezek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azaroaren 6an, ostiralarekin, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen, Barne Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Foruzaingoaren 2020-2023 aldirako plan estrategikoaren prestakuntza, kidegoa datozen urteetan garatzeko ildoak definitzen dituena.

Aldi berean, aditzera eman da "Antolaketa-egitura eta lan eskaintza publikoaren plana", non 2020ko LEPak 45 foruzain-postu jasotzen dituen. Foruzainen ordezkate-tasa 11 lanpostuena izanen litzateke; beraz, haietako 34 kendu dira Administrazio Erroko gainerakoari dagozkion lanpostuen ordezkate-tasatik.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Zehazki, zer arlotan eta zer lanpostutarako ez da deialdirik egingen, 2021, 2022 eta 2023rako iragarritako lan eskaintza publikoetako foruzainen lanpostu kopurua handitu ahal izateko?

Iruñean, 2020ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## **Galdera, Gazolazko egoitza-harrera espezializatuko zentroa ixteari buruzkoa.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, Gazolazko egoitza-harrera espezializatuko zentroa ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin dugunez Gazolazko egoitza-harrera espezializatuko zentroa abenduaren 20an itxiko da. Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zer irizpide erabili dira erabaki hori hartzeko eta zer egoeratan geratuko dira zentroan lan eginguten zutenak eta bertako erabiltzaileak?

Iruñean, 2020ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## **Galdera, abeltzaintza estentsiboaren arazoei buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, abeltzaintza estentsiboaren arazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean ahoz erantzun dakion.

Orain dela urte bat Navarra Suma talde parlamentarioak Osoko Bilkuran eskatu zizun abeltzaintza estentsiboaren arazoei heltzeko, adabakiei uzteko eta plan estrategiko bat egiteko. Inoiz egiteko asmorik al duzu?

Iruñean, 2020ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## **Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan ezarritako medikuntzako graduari buruzkoa.**

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan ezarritako medikuntzako graduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayenek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Unibertsitate Publikoan ezarritako medikuntzako graduak nolako ezaugarriak ditu, zein dira haren baldintzak eta nola dago ikasketa horiek emateko erabiliko den eraikina?

Iruñean, 2020ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

## **Galdera, LKN hiri-artistaren kartela kentzeari buruzkoa.**

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, LKN hiri-artistaren kartela kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik agindu zuen lehendakariak joan den azaroaren 11n, asteazkenarekin, LKN hiri-artistak Nafarroako Parlamentuaren aurrean jarritako kartela kentzeko, eta edonola ere zer balorazio egingen du aipatu ekintzari buruz?

Iruñean, 2020ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, taberna eta jatetxeetarako, ostatueterako, bidaiia-agentzia eta turismo-jardueretarako eta gaueko aisialdirako laguntzei buruzkoa.**

*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, taberna eta jatetxeetarako, ostatueterako, bidaiia-agentzia eta turismo-jardueretarako eta gaueko aisialdirako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Joan den urriaren 13an Nafarroako Gobernuak iragarri zuen 10 milioi euro arteko zuzeneko laguntzen lerro bat 2020. urterako, taberna eta jatetxeetarako, ostatueterako, bidaiia-agentzia eta turismo-jardueretarako eta gaueko aisialdirako.

Gaur egun ez dakigu noiz gauzatuko diren, ezta haietara iristeko baldintzak zein izanen diren ere.

SARS-CoV-2 infekzioen hedapena geldiarazteko Nafarroan hartu diren prebentzio neurriek jarduera erabat gelditzea ekarri dutenez, Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du sektore horretarako laguntza gehigarriak eratzea, noiz, zer baldintzarekin eta nolako proportzionaltasunarekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti



## **Galdera, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legearen aldaketari buruzkoa.**

*JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legearen aldaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den astean Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legearen aldaketa onetsi zuen. Hori dela-eta, Talde Parlamentario Sozialistak honako galdera hau aurkezten du:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Toki Ogasunei buruzko Legearen aldaketari buruz eta zer eragin izanen du toki entitateentzat?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

## **Galdera, Europako Batzordeak Nafarroa gizarte ekonomiaren erreferentzia gisa izendatzeari buruzkoa.**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Europako Batzordeak Nafarroa gizarte ekonomiaren erreferentzia gisa izendatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela egun gutxi jakin genuen Nafarroak parte hartua zuela, Bulgariako Gabrovo erregioarekin

batera, Europako Batzordeko foro batean, bultzatze aldera ekonomia sozialak lehiakortasun jasangarriaren eta ekitate sozialaren garapenean duen eginkizuna.

Zalantzarik gabe, Nafarroan ekonomia sozialak duen indarrak gure mugak zeharkatu ditu eta Europako erreferente bihurtu du, aldi berean ahalbidetuz Gaitasunen Itun bat (Pact for Skills) gauzatzean parte hartzaile izatea.

Nafarroa sartzek argi erakusten du Europako Batzordeak erreferentziako erregio gisa aitortzen duela; aitortpenaren zioa da, hain zuzen, Nafarroa dela Europar Batasuneko erregio bakarra ekonomia soziala garapen industrialaren ardatz gisa txertatu duena bere Espezializazio Adimenduneko Estrategian (S3), Ekonomia Sozialaren Plan Integrala (2017-2020) S3an bertan txertatu baitu.

Horregatik guztiagatik:

Zer balorazio egiten du Garapen Ekonomikoko kontseilariak hautaketa horri buruz eta zer dakar gure erkidegoarentzat?

Iruñean, 2020ko urriaren 12an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **Galdera, 2021erako proposatutako aurrekontuek Nafarroarentzat izanen dituzten eraginei buruzkoa.**

*RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2021erako proposatutako aurrekontuek Nafarroarentzat izanen dituzten eraginei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Zer suposatzen dute gure erkidegoarentzat Nafarroako Gobernuak Parlamentuan onetsiak izateko aurkeztu dituen aurrekontu horiek?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12n

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

## **Galdera, Gabonei begira aurreikusten diren mugikortasunari eta familia-bilerei buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Gabonei begira aurreikusten diren mugikortasunari eta familia-bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gabonei begira zer aurreikuspen du Nafarroako Gobernuak mugikortasunari eta familia-bilerei buruz?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eta errenta bermatua gainezartzeari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eta errenta bermatua gainezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak nola baloratzen du bizitzeko gutxieneko diru-sarrera abian jartzea eta prestazio hori eta errenta bermatua gainezartzea, hartzaileendako kalteak ekarrita?

Iruñean, 2020ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, desinformazioaren aurka jarduteko prozedurari buruzkoa.**

*JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, desinformazioaren aurka jarduteko prozedurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírezek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak neurriren bat hartuko al du hedabideetan eta sare sozialetan desinformazioa jazartzeko, Espainiako Gobernuak desinformazioari aurka egiteko berriki onetsi duen prozedurarekin bat?

Iruñean, 2020ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

## **Galdera, Ten Brinke multinazionalak Superser-en antzinako lurzatiaren esleipen-baldintzak betetzeko bermeei buruzkoa.**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Ten Brinke multinazionalak Superser-en antzinako lurzatiaren esleipen-baldintzak betetzeko bermeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamenduko eta Etxebizitzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer berme daude, gaur egun, Ten Brinke multinazionalak bete ditzan Nafarroako Gobernuak, Nasuvinsaren bidez, Superser-en antzinako lurzatiaren jabetza esleitu zionean ezarritako baldintzak?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, ZIU oheak direla-eta benetan dagoen ahalmenari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, ZIU oheak direla-eta benetan dagoen ahalmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da Nafarroak, ZIU oheak direla eta, daukan benetako ahalmena, zentroen arabera zehaztuta?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Celaá Legearen onespeneren ondorioei buruzkoa.**

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, Celaá Legearen onespeneren ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak Celaá Legea (LOMLOE) onesten denean Nafarroako irakaskuntza itunduan izanen diren ondorioei buruz?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## **Galdera, hezeguneen babesa zabaltzeari buruzkoa.**

*AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, hezeguneen babesa zabaltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingu-rumeneko kontseilariak azaroaren 19ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du Ezkorrizko edo Zolinako idoiien moduan faunan eta florran balio handia duten hezeguneen babesa zabaltzea eta babestutako eremuen katalogoan sartzea?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoa idazteko kontratuaren lizitazioari buruzkoa.**

*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoa idazteko kontratuaren lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer egoeratan geratzen da Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoa prestatzeko kontratuaren lizitazioa, Nafarroako Kontratuen Auzitegian errekurtsioa ezarri ondoren eskaera partzialki onesten duen ebazpena eman baita?

Iruñean, 2020ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

## Galdera, udal enplegu publikoaren deialdiei buruzkoa.

### MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkosun handiko galdera, udal enplegu publikoaren deialdiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasuneko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariorde Remirez jaunak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Berriki jakin dugu Nafarroako udal batean enplegu publikorako deialdi bat izan dela, oposizio bidez eratzeko garbiketa-lanak egiteko aldi baterako kontratatuko diren izangaien zerrenda, euskarazko A2 hizkuntza-eskakizunarekin.

Udalerrri horretan euskarazko hizkuntza-eskakizuna ezartzearekin lanpostu horretara iristea mugatuta geratzen da populazioaren % 60 baino gehiagorentzat.

Beste alde batetik, lanpostuak ez du berriazko baldintza ez euskara ez eta beste hizkuntzak ere jakitea, meritutzat jo ahalko balitz ere.

Hona aipatu deialdiaren edukiaren zati bat (264. NAO, 2020-11-11koa):

1. oinarria.—Arau orokorrak.

1.1. 1.1. Deialdi honen xedea da oposizio bidez eratzeko .... Udalean sortzen diren garbiketa-beharrei erantzuteko beharrezko diren garbitzaileak (Zerbitzu Orokorrak) aldi baterako kontratatze izangaien zerrenda.

Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamendua eta gainerako araudi aplikagarria.

Deialdi honek indarrrik gabe uzten ditu Udalean egon daitezkeen aurreko kontratazio-poltsak.

1.2. Bete beharreko eginkizunak eta zereginak deialdi honetan eskatzen diren lanbide mailari eta kategoriari dagozkionak izanen dira, deialdian eskatutako titulazioaren arabera. Besteak beste, aipatze aldera, udal eraikin eta instalazioak eta bide publikoak garbitzea eta txukun mantentzea, edo antzeko beste edozein zeregin egin beharko da, kasuan kasuko zerbitzuaren eskakizunen arabera.

2. oinarria.—Izangaien betekizunak.

Oposizio-lehiaketa honetan parte hartzeko, izangaiak honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

2.1. Espainiako nazionalitatea, edo Europar Batasuneko estatu kideetako bateko nazionalitatea edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartutako estatu bateko nazionalitatea izatea, baldin eta jasotzen badute abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera langileen eta haien senideen zirkulazio askea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiak aurkeztu beharko dute beren estatuan administrazio publikoan sartzea eragozten duen diziplina-zehapenik edo zigor-kondenarik ez dutela esaten duen zinpeko adierazpena.

2.2. Hamasei urte beteta izatea eta, hala bada, gogio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

2.3. Eskolatze-ziurtagiria edo baliokidea eduki-tzea, edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eskuratzeko moduan egotea.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

2.4. Dagozkion eginkizunak betetzeko beharrezko den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

2.6. Europako Esparru Bateratuko A2 mailako (idatzia eta ahozkoa) euskara-titulua izatea edo ... eginen den euskararen ezagutza-proba egiteko eskatzea.

Aurreko baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean bete beharko dira, eta

kontratu-harremana hasten den egunera arte eta kontratazio-aldian mantendu beharko dira.

Gainditzen ez bada mailakatze-proba eta, beraz, eskatutako euskara-maila egiaztatu ezin bada, hautagaia probatik kanpo geratuko da eta ez ditu hurrengo ariketak eginen.

Agerikoa da lanpostu horretarako ez dela euskaraz jakin behar eta, beraz, deialdi horrek eta ezaugarri berak dituztenek berdintasunaren, merezimenduaren eta eta gaitasunaren printzipioak urratzen dituztela, lanpostua betetzeko behar diren baldintzei dagokienez.

Badira duela gutxiko beste deialdi batzuk, antzeko ezaugarriak dituztenak, zeinetan merezimendu bakarra baita euskaraz jakitea, bazter utzita edozein merezimendu, esperientziakoa zein beste gaitasun edo titulaziori buruzkoa. Hainbat kasu izan dira alderdi honen inguruan. Adibidez, hautaprobetan gehieneko puntuazioaren % 10eko balorazioa ematea euskararen ezagutza akreditatzeagatik, bestelako meriturik kontuan hartu gabe;

praktikan, hori da euskarazko titulaziorik ez duenarekiko aldea izatea 100etik 16 puntukoa, 17koa edo gehiagokoa. Egoera horrek urratu egin du enplegu publikora berdintasun baldintzetan iristeko eskubidea. Alegia, kontaktzen den meritu bakarra da euskaraz jakitea, ez frantsesa, edo lanpostuko esperientzia, unibertsitateko beste titulazioak, prestakuntza, eta abar.

Enplegu publikoaren deialdi eredu horrek, gainera, bazter uzten ditu balizko beste meritu batzuk, zeinek hautaketa jaisten duten deialdi publikoaren xede den lanpostua betetzeko prestatuen dauden izangaientzat.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak euskara baldintza duten udal enplegu publikoaren deialdiei buruz, justifikatzen ez denean soslai profesionalarekiko lotura, edo meritu bakarra denean, eta zer aurreikusten du egoera diskriminatzaile horiek zuzentze aldera?

Iruñean, 2020ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero



## Galdera, EH Bildurekiko itunaren justifikazioari buruzkoa.

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkosun handiko galdera, EH Bildurekiko itunaren justifikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan oinarritzen zara adierazten duzunean Nafarroako Aurrekontu Orokorrak “negoziatu nahi izan duenarekin negoziatu dituela Nafarroako Gobernuak”, era horretan justifikatuz EH Bildurekiko ituna?

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

## Galdera, maskara gardenei buruzkoa.

*AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkosun handiko galdera, maskara gardenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak gaurkotasun han-

diko honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak azaroaren 19ko Osoko Bilkuran erantzun diezaion:

Pandemiak modu bikoitzean jo ditu gorrak. Izan ere, gaixotasun horretaz gain, maskara erabiltzeak eragozten die beste pertsonen ezpain aldea ikustea, komunikatzeko behar dutena, ezintasuna, ziurgabetasuna eta antsietatea sorraziz. Horren ondorioz etxean geratzera jotzen dute eta askotan osasun mentaleko arazoak izaten dira.

Zer aurreikuspen du Gobernuak Administrazioan, irakasleekin hasi eta jendeari arreta ematen dutenengana iritsiz, maskara gardenak erabil daitezen, entzumen-desgaitasuna dutenen esku-bideak bete ahal izateko?

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, Estatuarekiko negoziazioei buruzkoa, eskualdatu gabeko transferentziak izapidetze aldera.**

*UXUE BARCOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkosun handiko galdera, Estatuarekiko negoziazioei buruzkoa, eskualdatu gabeko transferentziak izapidetze aldera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko eledun Uxue Barkos Berruezo, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkosun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak heldu den azaroaren 19ko Osoko Bilkuran, ostegunarekin, ahoz erantzun dezan:

Zertan dira Estatuarekiko negoziazioak, eskualdatu gabeko transferentziak izapidetze aldera?

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo



